

## GIZA - MEMORIAREN BARNE - HARIAK

José María Satrústegui

Julio Caro Baroja maisu haundi eta adiskidearen omenez liburu bat prestatzea erabaki du Eusko Ikaskuntzak. Gomita jaso bezain laster, zer eskaini niezaiokeen pentsatzen jarri naiz. Huts egiteko arriskuarekin bada ere zerbait berri nahi nuke beretzat. Bat-batean, giza oroimenaz azken urte hauetan egin ditudan lanei jarraipena ematea bururatu zait, aztergaiari hipotesi mailan irteera bat ematen saiatzeko.

Ikasle naiz beti gai honetan eta egunetik egunera joan naiz korapilo berriak aurkitzen. Izen haundiko maisuak ere horrela zebiltzela ikusteak ausardia eman dit bidean eta herri jakintzan sakondu nahiak bultzatzen nau jarraitzera.

Xumea izan zen nere lehen aurkipena. Biziak eraginik igaro nuen egun batez Ibañetako mendatea eta bederatzirekin egon nintzen Luzaiden, 1955etik 1964ra. Nere biziko urterik politenak gertatuko baziren ere gero, hasiera gogorra izan nuen luzaidarren pentsakera eta hizkuntza berezian trebetasunez murgildu arte. Besteak beste, ipui, atsotitz, bertso eta sineste zahar asko jaso nuen baserrietan. Horrela sortu zen nigan herri jakintzaren gose-egarria.

Juan Echamendi, “Bordel” bertsularia, askotan aipatzen zuten bere herri-tarrek. Maite zituztea haren kantuak eta ez zen ostatueta festarik bat edo beste kantatuko ez zutenik. Horrela ikasi nuen baserriar honen berri eta argitaratu nuen bere kantu bilduma (1).

Ez nuen liburu hau aipatuko ere hemen lan honen muinarekin zerikusirik izan ez balu. “Bordel” zenaren bertsuetan aurkitu nuen, hain zuzen, oroimenaren azterketa honetarako lehen oinarria. Bertso amaierako hitzen bat errepi-katu ohi du, askotan, hurrengo bertsoaren hasieran. “Donostian soldado” izeneko pasarte adibidez, jarraian baliatzen du hitz joku hau:

4/5 “...kontent ginen bizirik heltzia zubira.  
Zubira ginenian...”

---

(1) SATRUSTEGUI, J.M. *Bordel bertsularia*. Tolosa, 1965. Auspoa Liburutegia, 45-46.

- 5/6 "...*arribada* hunian sartzeko oreña.  
*Arribada* baneza ongi manifesta..."
- 6/7 "...han ikusi ginuen terribleko *besta*.  
*Bestaren* erretoria dolore tristia..." (2)

Gero ikasi nuen bertsogintzako joera hau ez zela Luzaideko koblakariaren asmaketa arrunta. Aspaldiko kantu zaharretan bagenuen horrelakorik. "Andere lokartua"-n besteak beste, ikusten da:

- 1/2 "*hirur kapitainek* hor daramate gortez enganaturik.  
*Hirur kapitainak* jin ziren..."
- 2/3 "Paris'erat eraman dute, ait'amek jakin gaberik.  
*Paris'en* ostalerts..." (3)

Errepika mota honek erro sakonak izan zituen noizbait eta bere aztarnak bertso barnean ere aurki ohi dira. "Egun bereko alarguntsa" deitzen den kantu ederrean adibidez:

- "buket bat igorri ditadazut *lili arraroz eginik*  
*lili arraroz eginik eta* erdia pozuaturik".
- "zitru urez ukuzten nizun *astian egun batian*  
*astian egun batian eta* ostirale goizian" (4).

Beste kantu oso ezagun batean. "Neskatx ontziratua"-n alegia, hitz- joku bera agertzen da:

- "Brodutzen ari nintzen ene salan jarririk;  
aire bat entzun nuen *itsasoko aldetik*  
*itsasoko aldetik* untzian kantaturik.
- Brodatzea utzirik, gan nintzen amagana,  
hean jaliko nintzen *gibekeko leiora*,  
*gibekeko leiora* itsasoko aldera.
- Bai, habil, haurra, habil, erron kapitainari  
jin dadin afaitera, *hemen deskantsatzera*  
*hemen deskantsatzera*, salaren ikustera.
- Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana,  
jin zaitez afaitera, *hantxet deskantsatzera*,  
*hantxet deskantsatzera*, salaren ikustera (5).

(2) l.c. 40 or.

(3) ONAINDIA aita. *Milla euskal-olerki eder* 1954. 50 or.

(4) ONAINDIA aita. MEOE. 46 orrian.

(5) ONAINDIA aita. MEOE. 52 orrian.

Andre gazte xarmanta, zu sar zaite untzira,  
gurekin afaitera eta *deskantsatzera*,  
*hortxet deskantsatzera*, salaren ikustera...” etab.

Ahoz-ahoko literaturaren ezaugarri berezia izan dezakegu hori. Oroimenaren finkapena mezua errepikatuz asko indartzen da eta mendez-mende bere lorpen guzian jakintza idatzi gabe jaso eta ondorengoei utzi zien herriak, dudarik gabe, izan behar zituen baliabide egokiak.

Idazkerarekin papera izan da, gero, mezu eta adierazpen askoren oinarri, ordurarte oroimenak lortua zuen trebetasuna motelduz.

Ahoz-ahoko erabilpenaren berezitasunak aztertzea ez da orain batere erraza, ereduak galdu baitira. Hala ere, behin edo beste azaldu ohi den aurkipen bitxirik badugu. Halakotzat daukat Urdiainen jasotako “Pazkua maiatzekua” izeneko erromantzea. Urtean behin abesten zuten gazteek soka-dantza luzea eginez plazan Mendekoste festaren amaieran.

Ia lerroz-lerro errepikatzen dira bertso gehienak herritarrei oso atsegin zitzaizen giro alaian.

*Pazkua Maiatzekua*

*Pazkuetan dan alegerena pazkua maiatzekua.*

*Pazkua maiatzekua zan da jaiki nintzaren goizian;*

*Jaiki nintzaren goizian eta pasaiatzeko kalian,*

*Pasaiatzeko kalian eta egunian edo gaubian;*

*Egunian da gaubian eta izarra argi dônian*

*Izarra argi dônian eta laztantxuaren aurrian.*

*Neure laztana kalean dabil aide haundiak kunplitzen*

*Aide haundiak kunplitzen eta konbitearen emaiten.*

*Neroni ere konbiaturik nago ezta hortara juaten*

*Ehun bat lagun ikus nituben atal ondoan sartutzen*

*Beste horrenbeste edo gehiago eskaleretan iyotzen*

*Beste horrenbeste edo gehiago eskaleretan iyotzen.*

*Nere laztanan ezta hoietan guk jan genduben usoa*

*Beste guziak kunplitu eta laztanandako hegoa.*

*Nere laztana mai goienian ni barrenian egoiten,*

*Goguak baretz-baretz da bihotzak ezdu laguntzen*

*Hark niri gainu, nik hari gainu, alkar genduben penatzen*

*Alkar genduben penatzen eta arimea re lainatzen.*

*Estudiante barbailasku bat hasi zitzaigun igartzen*

*Hasi zitzaigun ubartzen eta hasi ere zaigun kargu hartzen*

*“In sekulorum” gerta eztaidela meza berria ematen  
Epistolia kantatzen eta urre kaliza goratzen.*

*Estudiante barbailaskua noiz eman behar dok mezea?  
Hire mezaren diruarekin egin behar diat lobeia (6).*

*Doinua:* Giza-oroimenari iraupena emateko beste lagungarri on bat kantua da. Esaera izan ohi da doinuaren barne-muin mamitua eta nolabaiteko betegarrria. Berezko hitzen laburpenak eta galerak hutsune nabaria sortzen du eta, horrela, mezu osoaren lokarri gertatzen da. Esames mintzatua galkorrigo da abestua baino.. Aspaldi jaso zuten gure jakintsuek honako lelo honen musika: “Amak hil nau, aitak jan nau, nere arreba ponpoxak (pospolinak) piztu nau”, baina ez zuten horren funtsik aurkitu. Hala beharrez, haur baten ahotik jaso nuen Urdiainen inoiz entzun ez genuen ipui izkutua. Amaierako hitz horiek bakarrik dute kantu doinua.

Kantuaren indarra oroimenaren sakontasunean, galtzeko punduan aurkitzen diren bertsoetan nabari da. Duda-mudako lerroetan doinua dator lehenik gogora, eta hutsean ahozkatuz erakarriko du, behar bada, ahaztuxea zegoen bertsoa. Zenbait herritan ezkilen doinuak berak badu hitzez jantzitako adierazpen jatorra.

*Puntuak.* Oroimenaren beste lagungarri garrantzitsu bat puntua da. Gizaldiz-gizaldi etorri zaizkigun esaera zaharretan ikusi besterik ez dago. Batzutan, hitzen kidetasuna aski da esaera iraunkorra borobiltzeko:

*“Mezkiritz ta Olondriz  
gari guti ta haur anitz.”*

Hitz parekatuen jokua oso zaharra da eta atsegin zaigu euskaldunoi. Horrela sortu ziren Larraungo “Lectio epistolae” zerrendaren antzeko hainbat herri-aipamen. Etxe izenekin ere egin ohi zen hori.

Haurrak txikitatik abiatzen dira izenekin jolasten, hala nola:

*Joxemari,  
lau hanka ta bost belarri.*

Abiapuntua hitz antzu edo esanahi gabeko errepika izan daiteke batzutan:

*“Elur-melur  
enuk hire beldur  
badiat arto eta egur.”*

---

(6) “Romance del amante relegado, en la literatura popular vasca” FLV. 1969 pp. 353-361. Satrustegui, J.M. “Pazkua mayatzekua” Notas del Cancionero Popular Vasco (Bilbao, 1968), p. E. 34.

Beste batzutan, puntuarekin batera irudigailu gertatu ohi da hitz errepikatu eta sinbologiaren haritik mamitzen du edukina. Mezua, orduan, hitz propioz esana bezain argi geratzen da:

*“Kanpoan lili eta etxean elorri.”*  
Edo gauza bera beste hitz batzurekin:  
*“Kanpoan uso ta etxean otso.”*

Nekazaritzako egutegia dago, nolabait, esaera zaharren bilduman eta baliapen zehatza zuen garai bateko jendeentzat.

*“Sen Mark  
hazia balin bauk emak,  
eta bertzenaz xerkatzat.”*

*Kopla zaharrak.* Oso berezia da gai honetan kopla zaharren mundua. Bertso hasieran eman ohi diren adierazpen hitzetan datza kakoa.

Hitz horiek, batzutan, hitz politen mailan gaiarekin beste loturarik gabe emanak direla iduri dute:

*“Trebola baratzekoa,  
larrosa maiatzekoa;  
zuri begira hementxe gaude,  
damatxo bihotzekoa.*

Alderantziz egindako aipamenarekin gauza ona azpimarratzeko joera ere bazegoen:

*“Zapata txuri paperez  
euriak jo ta ezer ez;  
herrian damak badira  
baña zure parekorik ez.*

Kontraesana bera izan ohi da, batzutan, gertakizun ulerkaitzaren adierazgarri egokia. Ezaguna da “Bereterretxe-ren kantoria”.

*“Altzak eztu bihotzik  
ez gaztanberak hezurrik...  
Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.*

Ohizko herri literaturan, hala ere, bertso buruko aipamen bakoitzak badu bere esanahi zehatza eta biak elkarrekin lotuak dira adierazpena eta bertsuen gaia. Hori esan nahi genuen duela urte asko ahozko literaturari buruz egindako lan batean (7).

---

(7) DIAZ PLAJA, Guillermo. *Literatura Vasca*, Col.: “Tesoro breve de las letras hispánicas”. Vol. VI (Madrid, 1972). J.M. Satrustegui. “Literatura Popular Vasca”, pp. 28-45.

Maitaleak bere bihotzeko kutunarentzat erabili ohi dituen hitzak, argia, izarra, eguzkia, lorea eta antzekoak dira:

*“Mundian den ederrena zelian ekhia;  
lurreko anderetan, oi! ene maitia.”*

*“Lili bat ikusi dut baratze batean,  
desiratzen bai-nuke nere sahetsean  
lorea ez du galtzen, udan ez neguan,  
haren parerik ez da bertze bat munduan.”*

Neskato arinen arriskua usoaren irudiarekin adierazten dute kantuek. Hegalpeko luma eroria, ezkon gabearen umea da. Txori erresiñulak (8) jarraipenik gabeko amodioaren agerpena esan nahi du, eta baseperrak aldakortasuna: “niri hitzeman eta gibelaz itzuli”.

Esan nahi dudana zera da, aspaldi batean giza-oroimenaren lagungarri baliotsu izandako adibideak baditugula eta beste zenbait aurki daitezkeela, nahiz neurri haundi batean, maiz orduko egitura nagusiak betirako desagertu. Eta aspaldiko aztarnak diodanean, gaurko bertsolaritza eskolatuarekin bereizketa azpimarra nahi nuke. Aintzinako pentsakera irudimenduna edo sinbolikoa zen, eta oraikoa arrazoitua edo logikoa.

Pentsamolde hura ikuskari eta susmo bidetik ibiliko zen, behar bada, sormenaren mundu amesgarrian, baina kultura bat, bere jakintza, sortu zuen. Gaurkoan, zergatiaren zilbor estuari loturik datorkigun eskolan, teknika delako sare estuan erortzen ari da gizona.

Horrelako zerbaiten susmoa zukeen G. Arestik 1959.eko abenduaren 14an honako hau idatzi ziolarik N. Tauer-i:

“Badakizu lehen poesiak idazten nituela. Lizardiri eta gaurko bere olerkariari imitatzen nien, baina egun batean haien idaztanka etzitzaidan jatorra iduritu, eta bertsolariek nola egiten duten, eta nola egin zuten behinolako poetek estudiatzen paratu nintzen. Handik beste bat atera nintzen. Ikusi dut euskaldun poesi jator eta usariodun bat dagoela, eta hari lotu natzaio.” (9)

## Oroimena

Giza-oroimenaren literatur adibideak plazaratutako emaitzen zipristinak besterik ez dira. Oroimenaz, berez, pertsonaren barne-indarra da.

Une bakoitzeko berriak jaso, ikasitakoak zaindu eta behar denean azaltzeko ahalmenari deitzen diogu, bereziki, oroimena. Geutako bakoitzak jakinaren

(8) Ruiseñor.

(9) “Aresti eta Tauer-en arteko harremanak” EGAN, 1983, 1-6, 31 orrian.

ganean, konturatuz alegia, jasotako gaiez hornitzen da. Ikusmenaz eta entzun-bidez datorkio gehienetan kanpotik ikasgaiaren eragina; gero, norbera edukiaz jabetzen den neurrian —orduan da informazio bihurtzen—, eta horretaz eginda-ko baliapenean datza pertsona horren jakituria edo jakintza.

Buru muinetan egin ohi da bilketa eta bertan dago grabapenen gordailua.

Bilketa ez du oroimenak itsu-itsura egiten; galbahe estua ipintzen die berriei interesgarriekin gelditzeko. Gertakizun batzu atsegin ala nahigabe gehiagorekin bizi ohi dira besteak baino, eta sarkorrigo da haien oroitzarria. Zerbait iortzeko irrika edo galtzeko beldurra biziagoak diren neurrian sarmena ere horrela izango da. Gogoz ikasten dena nekez ahazten da.

Hitz gutxitan esateko, arreta guzia ipintzen delarik ekintza batean, hainbat errezago hartzen da gogoan. Bertsolaritzaren kasuan, arbasoengandik zetorkien aspalditik euskaldunei zaletasuna, eta bazuten berezko joera bat entzun-ahala ikasteko. Denbora berean, lagungarri onak izango zituen, noski, doinua, punta, errepika, erritmoa, eta abar, kantuaeren segida azpimarratzeko.

Ikus-entzungaiek bapateko prozesua igaro behar izaten dute oroimenaren gordailuan sartzeko.

Damagun begiz jotako jauregia dela. Ikus-kirioaren (10) bidez sartzen da oroimengailuen sarean. Baina, begien aurrean daukadan jauregiak ezin du bere osotasunean kiriobidea egin pertsonaren buruan zehar. Harriz-harri zatikatuta-ko jauregia balitz bezala argi-marra printzatatutan bialtzen ditu begiak osorik ikusten duen irudiaren osagarriak.

Bide erdian, talamo izeneko puntuan kirioa bikoiztu egiten da, irudiaren argi-xinta guziak bi bider parekatuz: lehen kirioak zuzeneko lana egiten du, eta zeharkakoa besteak.

Zuzenean joandako ezaugarriak irudiaren itxura orokorra itzultzen dien osagailura doaz. Buru muinetako nukleo horretan jabetzen da pertsona begiek kanpoan ikusitako erremenduaz, kasu honetan jauregiak. Ikuskirioaren bidez mugi diren argi-xintak, aurrez-aurre begiek ikusitakoaren errainu zehatza bihurtzen dira bakoitzaren barnean.

Esan behar da, noski, ikustaldi iragankorra dela neuronek bide horretatik sortu dutena; iraupen gutxikoa alegia, bat-batekoa. Mirailan (11) bere burua ikusten duenaren antzekoa. Begiak gainetik kendu orduko ahazten da.

Oroimenaren linkapena eta aurrez ikasitako berriztatzea, zeharkako bidea daraman kirioak sustatzen ditu. Ziztada aproposen eraginez okzipital azaleko partean grabapenen gordailua abiatzen du. Une bakoitzean begiak ikusitako zer guzien antzeko irudiak artxibotik aurkezten dizkio bigarren maila batean eta

---

(10) Nervio óptico.

(11) Espejo.

horrela sortzen da ezaumenaren agerpena. Konturatzen da ikusten duenarekin, jabetzen da aurrez jasotako erduekin eta, hitz gutxitan esateko, *badaki* horren berri.

Bigarren ekarkin honek edozein gauzagatik huts egin baleza, ezaumenaren arloko etendura sortuko litzateke. Ikusi, ikusiko lukete begiek aurrean daukaten ikusgarria, eta pertsona konturatu ere bai une hartan ikusten duenaz, baina inoiz lehenago ikusi gabeko zerbait berri balitz bezala. Oroimenaren gordailuko imajina edo aurre-eredua ez iristean, burua zuri gelditzen da amnesia esaten zaion ezagumen-eza edo ahazkortasunaz.

Entzumenaren bidez eta beste edozein zentzuren ildotik jasotako informazioarentzat balio du, noski, agerpenak, dagozkien kirioetara aldatuz neuronon klabeak.

Bertsolarien kasuan, jatorrizko senaz eta erabilpenaren poderioz, entzumenazaletu da gehien bat eta oso bizkorra izan ohi da adimenaren erantzuna. Bat-bateko zirtadari etenik gabe hartzen zaio itzulia edozein saiotan, aurrez ikasitako gauzak balira bezala.

Zeharbidez doan zentzuen emaitz hau oroimenaren sareetara heltzen da eta Nitrogeno elkartuen atomoetan bildurik irauten du. Artxiboa.

Oroimenaren ahalmenak atzerakada haundia egin du azken gizarteetan. Urte askotako lorpenak denbora gutxian ezeztatu daitezke. Horren arrazoiak era askotakoak dira:

*Pentsatera.* Ahoz-ahoko tradizioan oinarriturik jaso genuen arbasoen oroimen harrigarri hura, Sinbologiaren arloan alegia, arrazoizko jakintza logikoak pikutara bota ditu orduko uste, sineste, aburu, eta hauen inguruan sortutako herri-jakintza. Bide horretarako gertaturik zegoen oroimenaren egitura bera ere moteltzen joan da, eta trebetasuna nagiturik gelditu da.

*Izkribua.* Idazten eta irakurtzen ikasteak, oroimenak bere gain hartua zuen eginkizuna, neurri haundian, paperera desbideratu du. Denbora luzean liburua izan da gizartearen memoria. Horrela, ariketak murriztu zaizkio buruzko lanari eta, ez saiatzean, gazteen oroimena alferturik dago. Tresnarik hobereenak erdoitzeko arriskua dauka erabiltzen ez bada.

*Konputagailuak.* Gero eta tresna aurreratuagoak asmatzen doa elektronika aroko gizona, ia dena eginik eskaintzeraino. Aurrerapen harrigarri honek badi-tu gizonarentzet bere arriskuak. Adimenaren lagungarri eta bultzatzaile den neurrian, ona da; baina norberari bere buruaz baliatzeko ahalmenak murrizten badizkio, tresnaren morroi eta mirabe bihur dezake.

*Ikus-entzugailuak.* Sukalde gehienetaz, jabetu dira, eta ia den-dena eginik ematen dutenez, jarraitzaile asko dute. Pentsatzeko ahalmena da nortasunaren tresna nagusia eta adierazgarri berezia. Tresna horien ondorerik kaltegarriena,



azken linean, bereaz hustu eta bestek emandako aburu eta adierazpenen jarraitzale itsu izatera iristea da (12).

## AZPIEZAUERA

Pertsonak konturatuz eta jakinaren gainean egin ohi dituen ekintza eta burubidez bestalde, badu azpiezauera (subconsciente) eta ezaugabe (inconsciente) bere biziari eragiten dion beste jakintza iturri bat. Indar honen garrantzia oso handia da, ekintza askoren iturburua eta literatur nahiz arteder lanen eragile izkutua bera baita.

Oroimenaz ari garenez, ikasitakoen gordailurik sakonena bera da. Bizian edozein gertakizun xume nahiz larrik utz ditzakeen aztarnak jaso ditzake; eta era berean, arbasoengandik jatorriz datozkigun zurrumurru eta burutazio arrotz ugari sortu ohi du. Gero eta gehiago baliatzen dut antropologi azterketarako hain iturri aberatsa.

Erljio eta sinesteen arloan, adibidez, kristau aro aurreko aztarnak aurki ditzakegu. Eguzkiaren ospakizuna gogoratzen duten otoitzetan, "*O iruzki Saindia, eman zahuzu biziko eta hileko argia*", jaso nuen Luzaideko Tolosha baserrian. Honen laburpena da Arruazun neure amaxo zenari eta Urdiainen beranduago entzundako hau: (argia piztean) *emaiguzu, Jauna, biziko eta hileko argia*.

Elizak ekaineko eguzki-jaiak Juan Bataialariaren izenean sartu zituelarik bere egutegian, herriak eguzkia ere bataiatu egin zuen eta handik aurrera eguzkiari Joanes deitzen zitzaion. Ondarrolako Borderre baserrian, Frantziako aldean, honela egiten zuten eguzkiaren arratsaldeko otoitza: *Adio, Joanes, zauri bihar muga onez*. Luzaideko Bidondosak adiskidantza gehiago zuen nunbait eta honela esaten zion: *Adio, Joanes, haugi bihar muga onez*.

Eguzkiaren jai nagusiak ekainean eta abenduan suarekin ospatzen ziren orduan, eta hor ditugu gabon egurra nahiz San Juan suak lekuko. Horrelakorik jakin gabe, hara zer esan zidan behin Urdiaingo agure maitagarri batek: "Zerbaitengatik esango zuten lehenagoko zaharrek, *Gabonetan plantxan eta San Juanetan plaza*".

Erljio gaietan bezala, jakintza mailan ere agerpen jakingarriak azaldu dizkigu zuzenean jasotako berrien itaunketak. Bada hala ere azpiezauerara iristeko beste biderik. Mitologi gaiak askotan loturik daude pertsonen barne izkutuenarekin. Zeharkako ondoreak dira, orduan, azterketak ematen dituenak.

*Iuguma*, adibidez, *Lozorro* Urdiainen, *Mahuma* Luzaiden, *amestxar* Arruazun eta *amesgaizto* beste herri batzutan, ohean dagoenari arnasa estutuz itozten jartzen duen gaueko mozorro beldurgarria da.

---

(12) SATRUSTEGUI, J.M. "La memoria en la tradición oral y en la literatura escrita del País Vasco". IX Congreso de Estudios Vascos, Bilbao 1983. In "Gaurko Euskal Gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX Mendek" 505-510 orrietan.

Aztertu nuelarik (13), uste gabeko berriak jaso nituen estualdi hori berengan izana zutenengandik. Ez da amets arrunta, zioten, gertakizunarekin konturatzan baikara, garrasi egiten dugu eta senditzen ere laguntzera datozenen urratsak. Ametsetan ez bezala.

Jan-edanen eta afarien arazoak zerikusirik ez omen du, gose denboran nahiz asetean berdin jarraitzen baitu. Familietan jatorriz dator batzuetan, eta garrasiak entzun bezain laster joan ohi dira elkarri laguntzera. Estutasunean dagoenari eskutik hartzea edo aurpegiari ukitzea aski ornen da lasaitzeko.

Euskaldunok mozarrotzat daukagun zer hau, erdarazko *pesadilla* bezalako zerbait da.

Batzuei eta besteiei egin nizkien galderen arabera, pertsona horiek ahozgora lo egiteko ohitura dute, eta askatzera joatean eskuak bular gainean egoten direla, aditzera eman didate. Horrek esan nahi du, egoerak sort lezakeela eskuen zamarekin larritasuna. Arazo fisiko baten aurrean aurkitzen gara beraz. Azterketa berriekin ikusi beharko da.

Estutasunaren ezaugarri nagusia, bestalde, kirioen hiltasuna da: eskuak eta gorputza mugitu ezina. Horrexegatik oihera egiten du zapalduak eta laguntza eskatzen. Albotik norbaitek ukitu orduko lortzen da kirioen erreakzio eta biderapena. Buruko erantzunen ardatza ikertzera bultzatzen gaitu honek.

*Mitologia.* Gertakizun hau dela eta, mozarroaren itxura asko ematen dira esamesetan. Larru legun eta goxoko katua dela esaten zen Baztanen. Norbaitek eskuetan eduki ere ornen zuten.

Luzaiden Gañekoletako Mahuma ez zen emekerietan ibiltzen. Indartsua da eta mendiko harriak amiltzen nahiz haitz leherketak egiten jolasten zen auzokoen beldur haundiarekin.

Urdiaingo Lozorroak giza-itxura hartzen du etxe batzutan. Familia bateko hiru biztanlek honela ikusten dute:

Amarentzat gizatar haundi itsusia zen eta gelako atetik sartzen sumatzen zuen berak. Beste toki batzutan ere gizezko mamua da, sorgina gehienetan emakumea izan ohi den bezala.

Honen semeak ez du inoiz giza-soinik ikusi egoera horretan; beso luze bat bakarrik, leihotik sartu eta sahetsetik harrapatuz indarka kanporatzen ahalegintzen dena. Baina denbora berean, beste beso indartsu batek alderantziz barnera erakartzen du. Borroka latz honetan egon ohi da norbait iritsi arte.

Honen arrebak ez du giza-figurarik ikusten. Indar arrotz bat sartzen zaio oinetatik eta bularretara igoz, bere burua itotzen ikusteraino estutzen dio arnasa.

---

(13) SATRUSTEGUI, J.M. "El Inguma o pesadillas nocturnas en el medio rural vasco". Ponencia presentada a las "III Jornadas Nacionales de la Asociación Española de Neuropsiquiatría", Madrid, 14 de noviembre de 1981.

Batzurendako deabruaren lana da eta beste askorentzat gizonezkoen sor-  
gin indarrak dira, esan bezala.

Buruhauste askoren ondoren, pertsona horien *ezaugubean murgildutako eraginen azalpen garbia* delako uster a iritsi naiz. Ezagutzen ditudan kasuak aztertuz, adibidez ezaugarri hauek aurki ditzakegu:

Ama hori bost ahizpetariko bat dela esan behar da. Anaiarik ez zuten eta kanpoan egiten zuen bizia euron aitak. Hori dela eta, gazte denbora txarra eman zieten herriko mutilek. *Infernua zen*, zioen berak, *gizonik gabeko etxean emakumeen bizia*. Izialdura asko eta, behin batean, lehergailu bat ezarri zieten ezkaratzean. Ate atzean egin zuen eztanda. Gertakizun horren bertsoak ere jaso ditut. Ez da, beraz, harritzekoa gaueko mamua gizatarz itsusi bat bezala gelan sartzen ikustea. Bere ezaugabeen oso barnean sarturik zeraman gizonenganako beldurra alegia.

Semearen kasua hobeki azter dezaket. *Gorputz haundikoak diru familian eta indartsuak, bera ezik*. Anaia gazteagoa plazaz-plaza ibilia da urte askotan borrokan. “Catch” jokoan txapeldun izan zen eta munduan zehar ibilia. Gazte denborako basakeriak edo/eta bere gutxiustea —konplexua— aurki daitezkeela iduritzen zait, gaueko iduripenen beso luzeetan.

Arrebaren estualdiek ez dute adierazpen nabarmenik. Izatez lasaia da bera, eta bere esperientziak itotzeraino arnasa estutzea beste berezitasunik ez du nabarmetzen lozorroan. Txarra dela, ez du besterik esaten.

Erdi lo, mugi ezin delako; baina esnaturik gertakizunetaz konturatuz, *azpiezuerako eraginen mundua datorkio pertsonari*.

Luzaiden gertatzen dena antzeko zerbaite izan arren, pertsonal mailatik *auzo girora zabaltzen da*. Haitz haundi batzuren azpi aldean dago Gañekoleta. Betikoa da han harrien erorketa eta makur haundiak gertatu izan dira hurbilen etxeetan.

Mahuma luzaidarrentzat gaiztagin orokorra bihurtu da eta makur guziak leporatzen dizkiote bertakoek. Malkorrak etxe bat lehertzen badu, Mahumaren lana da; eta ametsetan harrien erorketa ikusten bada ere bai. Ubeldura gorputzean agertzen bada, “Mahumaren zimikoa” esaten zaio. Azpiezauera elkartua edo *subconsciente colectivo* delakoaren adibidetzat har daiteke orduan.

## **Ezaueraren barne hariak**

Izkribuetatik eta entzumenaren bidez jasotako adibide hauek, begizkoak bezalaxe, pertsonaren buru-muinetan dituzte beren hari izkutuak. Antropologi azterketan garrantzitsua da, fisika eta genetika ikerketak lagun, bertan zer gertatzen den ikasten joatea.

Hiru une nagusi azpimarra daitezke adimenaren berezko lanbide honetan: a) Kanpotik datorkion berriaz jabetzea. b) Oroimenak jasotakoaren ondorengo baliapena. c) Horien bidez norberak mamitutako aburu eta burutape-nen emaitza.

Zentzuen bidez inguru girotik hartutako ikasgaiak oroimenaren gordailu edo artxibora abiatzen dira, lehen esan bezala. Helburua ez da han zokoraturik gelditzea, bizioan zehar denen berri ematen joatea baizik. Berri horiek sailkatu-rik azaltzen dira gai bakoitzari dagokion eran.

Informazioaren erabilpena ezaueraren arloan osotzen da. Horretarako, oroimenak agerpena egiten dio eta adimena datorkionaz jabetzen da. Bien bitarteko bidea ez da aurreko aldiaren bezala ikus-entzun kirioen neurona hutsez egiten. Beroa sortzen duen kimikazko erreakzio batez, bertako Helio gasaren atomo askeek egoera kuantikoa edo neurt-egoera aldatzen dute. Aldaketa horrek, denbora berean, elektronikazko prozesu batez Helioren atomo askatu berorien azalean soinu-uhinak sortzen ditu.

Hurrengo urratsa, Kripton gasak ere aske dituen beste atomo batzutan finkatzen da. Heliorengandik datorkion oihartzuna edo azantz-hozka, erdaraz *resonancia* esaten dena, heldu den eran hartzen du fisikoki, pentsamenduen maila ez-materialeko adierazpen bihurtuz ondorean.

Lorpen honek garrantzi handia du antropologi ikerketen munduan. Buru muineko prozesu honetan azken neurkarri fisikoa Kriptonen atomo hauetan amaitzen da. Hor sortutako zantzuak izpirituaren arloko eraginez abiatzen dira eta norberaren pentsabidea bultzatzen dute.

Kripton gas aztergarriak, beraz, giza-zentzu fisikoen eta izpirituaren arartekotza egiten du. Gorputz eta arimaren arteko eratzun edo zubi den zerbait badu berekin. Bi mailatako eragina badela bertan esango genuke: Bere atomoek betetzen duten eginkizun fisikoa, alde batetik; eta pentsaketaren ulermenerako sortzen duen adierazbide izpirituala, bestetik.

Aldagailua, itxuraz, azaleko sei atomoren inguruan gertatuko litzateke. Irrati-tresnen antzera, berri jasotzaileak dira batzu eta emaileak besteak (14).

Atomo horietako bikote batek bere ekintza fisiko mailan egingo luke, kanpoko zantzuak datozkion eran hartuz, eta era berean beste batzu bialduz. Kanporako berrien aldagailua dela esango genuke.

Bigarren atomo bikoteak zantzu fisikoak, indar fisiko iduri ez duten ezau-pide edo adierazgarri bihurtzen ditu, adimenak ulertzeko. Eta denbora berean, adimenak bialtzen dizkion burubide, asmakizun eta aburuak jaso ondoren, zantzu fisikoen arlora doaz alderantziz.

---

(14) "Barrengo Memorien Mekanismoak" *Eskolarra ez den Hezkuntza* izenburuarekin Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatutako ikastaroan aurkeztu nuen iritzi hau. (1985.X11.26).

Atomo aktibo direlako horien hirugarren bikoteak jokaera harrigarriagoa eta izkutuagoa azaltzen du. Itxuraz, informazio berdina erabiltzen du pertsona guzientzat, edo eragin antzekoa behintzat, nahiz gero bakoitzak bere aukera egin. Hori horrela balitz, ezauera orokorra edo arima elkartuaren adierazgailua dela esango genuke.

Kriptonen baitan sumatzen den ekintza miresgarri honetan datza gizonaren misteriorik sakonena. Bere emaitza, pertsona zuhurra beste bizidun guzientzandik bereitzen duen dohain nagusia, jakintza da.

Nundik datorkio Kriptonen atomo multzoari eraginaren gidaritza? Zer indar mota da hori? Airean gelditzen da oraikoz galdera. Bitartean esan dezakeguna hauxe da: Gorputzaren eta arimaren arteko lokaririk baldin bada nunbait, atomo horien aldaketa sortzen duen eragina da. Ala hori ote da arima?

Une honetan Antropologiak duen helbururik amesgarrietako bat lotura horren ahalmen izkutua argitzea da. Izpituaren arnasa alegia.

## Resumen

El trabajo contempla, en síntesis, tres aspectos básicos del funcionamiento de la memoria, que se refieren a las manifestaciones mecánicas, articulaciones somáticas y proyección psíquica de la misma.

La primera parte viene a ser el compendio de estudios anteriores y recoge algunas formas de mnemotecnia conservadas en la tradición oral y en textos populares vascos. Destaca la importancia de la repetición sistemática de palabras y frases en las composiciones métricas, además de la rima, ritmo y música que ejercen decisiva influencia en la transmisión tradicional. La valoración se refiere tanto a la información consciente y la del subconsciente personal, como a las manifestaciones de la conciencia colectiva.

En segundo lugar aborda las cuestiones relativas al funcionamiento físico de la memoria en la doble vertiente de actuación neuronal, así como en la transformación de los impulsos nerviosos en resonancias termomoduladas que propician la entrada a la clave de la consciencia.

En el campo de la fisiología especial de los órganos de la memoria cabría formular la siguiente hipótesis de trabajo: la función de almacenamiento de la información corresponde fundamentalmente a los átomos de Nitrógeno asociados en la espiral de una cadena de polipéptidos. El margen de elasticidad es notable por la capacidad de alterar el estado cuántico orbital que tiene el Nitrógeno en la asunción codificada y secuencial de los datos.

Sin apartarnos de las funciones físicas, una segunda cadena de átomos libres de gas Helio es la encargada de transformar los impulsos procedentes

del ámbito exterior y de la memoria, en mensajes orientados hacia las facultades mentales.

El paso decisivo de las sensaciones con soporte físico a puras lucubraciones del pensamiento en la esfera intelectual parece ser que tiene lugar a través de un reducido número de átomos libres de Kriptón. Esta noble función podría realizarse a través de tres pares de átomos que actúan como órganos emisores/receptores con otras tantas áreas del conocimiento humano.

Un par de átomos contabilizaría las relaciones con los sentidos exteriores y, por supuesto, con la propia memoria, por la vía neuronal del sistema nervioso. Una segunda pareja se encargaría de establecer la interrelación con las facultades mentales, propiciando la creatividad intelectual y las formulaciones del pensamiento.

Finalmente, el tercer par de átomos libres de Kriptón actuaría, en teoría, con mensajes uniformes que gravitan sobre la conciencia colectiva humana, en general, aunque la selección de los mismos sea función personal y libre de cada individuo. Esta dimensión colectivizada de la información interpersonal viene a ser la puerta potencialmente abierta a los fenómenos naturales de la parapsicología, y posibilita la conexión estructural de los fenómenos de psicosis e histeria colectiva que se producen con motivo de situaciones catastróficas. Supone, sobre todo en el caso que nos ocupa, el acceso normal a la memoria colectiva.

La energía que determina la actuación de los seis átomos libres del gas Kriptón en el límite de la energía física y del pensamiento podría constituir el problemático “Tercer factor del hombre”.

## HIZTEGI LABURRA

*Adierazgailu*, emisor.

*Ahazkortasun*, amnesia.

*Ahoz-ahoko erabilpena*, tradición oral.

*Argi-xinta*, impulso luminoso, haz de luz.

*Arima elkartua*, alma colectiva.

*Atomo askea*, átomo libre.

*Azantz-hozka*, resonancia.

*Azpiezauera*, subconsciente.

*Bero-hozka*, termomodulación.

*Buru muin*, seso, masa encefálica. *Burmuin*.

*Ekarkin*, aportación.

*Emekeri*, afeminamiento.

*Entzumen*, facultad de oír, oído.

*Entzungai*, sonido. Objeto de la audición.

*Eragin*, impulso.  
*Errainu*, reflejo.  
*Errexiñula (txori)*, ruiseñor.  
*Ezauera*, conocimiento, facultad de conocer.  
*Ezauera orokorra*, conciencia colectiva.  
*Ezaugabe*, inconsciente.  
*Ezaupen-eza*, amnesia.  
*Ezaupen*, conocimiento, acción de conocer.  
*Ezautza*, conocimiento. Objeto del conocimiento.  
*Giza-oroimen*, memoria humana.  
*Gordailu*, archivo.  
*Haitz leherketa*, desprendimiento de rocas.  
*Ikus-entzungailu*, audiovisual.  
*Ikusgai*, objeto visual.  
*Ikus-kirio*, nervio óptico.  
*Jatorrizko sena*, aptitud natural.  
*Kirio*, nervio.  
*Konputagailu*, computadora, procesador de textos.  
*Miraila*, espejo.  
*Muga*, suerte. *Muga onez*, con buena suerte.  
*Neurt-egoera*, estado cuántico.  
*Oihartzun*, ruido, sonido.  
*Oroimen*, memoria.  
*Soinu-uhin*, honda sonora.  
*Sena*, instinto.  
*Txori errexiñula*, ruiseñor.  
*Ubeldura*, moradura, hematoma.  
*Zantzu*, señal.  
*Zentzu*, sentido corporal.  
*Zimiko*, pellizco.  
*Ziztada*, impulso (lit. pinchazo).